



Gareanek irakurketa kanpaina egoera berrira egokitu du. "(Etxean) Irakurri, Gozatu, (eta, konfinamendua amaitutakoan) Bertan erosi eta Oparitu" bilakatu da.

Gareanek martxoaren 15erako iragarri zuen **Irakurri, Gozatu, Bertan erosi eta Oparitu kanpainaren** abiapuntua. Baina, egoerak hala behartuta, kanpaina honek metamorfosia burutu du, tximeleta balitz bezala, eta orain: **"(Etxean) Irakurri, Gozatu, (eta, konfinamendua amaitutakoan) Bertan erosi eta Oparitu"** bilakatu da.

Esan bezala, egoerak behartuta, Lizarrako liburutegiak erabiltzaileendako atek itxi behar izan ditu eta, hortaz, Gareanek abiatu berri duen "Irakurri, Gozatu, Bertan erosi eta Oparitu" hankamotz gera tu da. Beraz, programa honi dagokionez, bi proposamen ditugu:

Batetik, egitasmoak martxoaren 15etik maiatzaren 31rako iraupena dauka. **Egitasmoaren amaiera data atzeratu** egingen da, oraingoz ezin aurreratu noiz arte, baina konfinamenduaren eta liburutegi zein liburu-denden itxialdira egokitzen saiatuko gara.

Bestetik, proposamen batekin gatozkizue, halabeharrezko etxeko giroa aparta izan daiteke irakurri eta gozatzeko, zergatik ez probestu?

1.- Irakurri etxeko apalategian ahaztua duzun euskarazko liburua, edo hartu online mailegua Nafarroako eLiburutegian (223 euskarazko liburu) [Nafarroako eLiburutegian](#) , edo deskargatu literatura euskaraz doan eta legezko eran, [Booktegi.eus](#) -en edo [Armiarma.eus](#) -en. Eta **gozatu etxeko sofán** edo ohean jezarrita. Edo irakurriozu etxeko hurrei.

2.- Irakurritakoan, **bidaliguzu mezu bat Garean**en helbide elektronikora (garean@gmail.com), bertan adieraziz: irakurlearen **datu pertsonalak** (izen-abizenak, herria, adina eta telefonoa), **irakurritako liburua** (izenburua eta idazlea), **eta bizpahiru lerrotan** zergatik gomendatuko zenukeen liburu hori. Eta, animatzen bazara, bidali zure argazki bat sare sozialetan argitaratzeko (azken hau hautazkoa da).

3.- Konfinamendua amaitutakoan, **zure zain izango duzu %25eko deskontu-txartela**, euskarazko liburu bat erosteko Lizarrako liburu-dendetan: Clarin, Dragon Comics, Ino edo Irrintzi.

Eta gainera... apirila eta maiatzako parte hartzaileen artean **30 euroko erosketa-txekea** zozketatuko dugu Lizarrako liburu-dendetan erabiltzeko.